

Hiru eskualdek kontzentratu zuten Euskal AEko industri jarduera 2005ean

Bilbo Handia, Arabako Lautada eta Donostialdean sortu zen balio erantsiaren %51,8 eta industri enpleguaren %47,5

Eustaten datuen arabera, hiru eskualdetan –hiriburuetan eta beren inguruetan- sortu zen Euskal AEko industri aberastasunaren erdia baino gehiago (%51,8). Industri balio erantsiaren %27,0 Bilbo Handian sortu zen; ondoren Arabako Lautada (Vitoria-Gasteiz) dator, %13,2, eta gero Donostialdea, %11,6. Hiruren artean 118.542 pertsona enplegatzen zituzten industrian; alegia, hiru herrialde historikoetan industriaren sektorean okupatutako pertsonen %47,5.

Jarraian, Euskal AEn industri balio erantsiagatik lau eta bosgarren, Durangaldea (%7,8) eta Deba Goiena (%7,0) datoz; bien artean 41.784 industri enplegu osatuz.

Herrialdeka, Arabak Euskal AEk sortutako aberastasunaren %21,1 ekarri zuen; portzentaje hau ekonomiari, bere osotasunean, ekartzen dionaren -%16,9- gainetik dago. Horrek esan nahi du industriaren pisua handiagoa dela gainerako jarduera ekonomiko guztiena baino. Arabako Lautadan (Vitoria-Gasteiz) sortzen da Arabako balio erantsiaren %62,4; Arabako Errioxarekin (%11,3) eta Kantauri arabarrarekin (%14,1), Arabako industri guztirakoaren %87,8 osatzen dute

Gipuzkoako industriak hiru herrialdeetako balio erantsiaren %36,8 ekarri zuen; ekarpen ekonomikoa %32,3 izan zen. Gipuzkoaren barnean horrela sortu zen industri balio erantsia: Donostialdeak %31,6; Goierrik %15,6; Deba Goienak 19,1, eta Urola Kostak %12; lauren artean herrialdeko %78,3.

Bizkaiak Euskal AEko industri balio erantsiaren %42,1 ekarri zuen; ekonomiari, bere osotasunean, %50,8 ekarri zion. Industriaren pisu erlatiboa zortzi puntu eta zazpi hamarren gutxiago izan zen lau sektore ekonomikoen multzoarena baino. Bilbo Handiak Bizkaiko industriaren balio erantsiaren %64,1 ekarri zuen; Durangaldearekin batera %82,7.

2003-2005 biurtekoan industri hazkunderik handienak Goierrin, Arabako Errioxan eta Bilbo Handian izan ziren.

Industri balio erantsiaren hazkunde nominala %17,5 izan da 2003-2005 biurtekoan. Bederatzi eskualdek hori baino hazkunde tasa handiagoa izan dute: Arabako guztiak, Mendialdea izan ezik: Arabako Ibarrek, Errioxa, Gorbeia Inguruak eta Kantauri arabarra. Bizkaiko bi eskualde, Bilbo Handia eta Durangaldea. Bi Gipuzkoako, Donostialdea eta Bidasoa Behea.


2003-2005 biurtekoan industri hazkunderik handiena Araban izan da, %20,2; Bizkaia gertu ibili da, %19,2; Gipuzkoa, %14,1 Euskal AEko industri hazkunde batez bestekotik hiru puntu eta lau hamarrena geratu da.

Industriako langile okupatuak eta balio erantsia faktoreen kostuetan, eskualdeka. 2003-2005. Euroak milakotan.

	Pertsonal okupatua (kopurua)		Balio erantsi gordina, faktore-kostuan	
	2005	Δ 05/03	2005	Δ 05/03
Euskal AE/C.A. de Euskadi	249.696	0,2	15.701.676	17,5
Araba/Álava	49.673	1,2	3.320.782	20,2
Arabako Ibarrek/Valles Alaveses	1.924	-1,0	128.980	21,9
Arabako Lautada/Llanada Alavesa	31.793	-0,7	2.073.654	17,7
Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa	356	12,9	15.247	-0,1
Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa	4.323	8,2	375.342	32,0
Gorbeia Inguruak/Estribac. del Gorbea	4.058	3,7	255.874	22,0
Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa	7.219	4,7	469.616	22,9
Bizkaia	103.107	-1,6	6.609.114	19,2
Arratia Nerbioi/Arratia-Nervión	4.895	-4,4	266.380	0,4
Bilbo Handia/Gran Bilbao	60.291	-1,8	4.233.172	25,2
Durangaldea/Duranguésado	21.683	0,1	1.229.818	12,1
Enkartzazioak/Encartaciones	2.211	2,5	188.058	20,7
Gernika-Bermeo	4.462	-3,4	209.127	5,3
Markina-Ondarroa	3.868	-4,2	183.497	7,9
Plentzia-Mungia	5.697	-1,2	293.315	8,7
Gipuzkoa	96.916	1,7	5.771.780	14,1
Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa	6.026	5,3	283.328	20,6
Deba Beherea/Bajo Deba	10.694	0,7	518.765	7,9
Deba Garaia/Alto Deba	20.101	0,2	1.103.086	9,3
Donostialdea/Donostia-San Sebastián	26.458	3,3	1.824.353	14,3
Goierri	13.626	2,9	898.046	32,1
Tolosaldea/Tolosa	7.911	-3,2	449.118	2,1
Urola-Kostaldea/Urola Costa	12.100	1,6	692.791	12,6

Iturria: Eustat.

Balio Erantsi Gordinaren hazkundera faktoreen kostuetan, eskualdeka. 2003-2005 biurtekoa (%)



Iturria: Eustat.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula Lazkano

Tel.: Faxe:

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp